

20 ■ Ipar Korea: zigorrak, «gera deklarazio»

Bere subiranotasuna urratzen dutenei «kolpe gupidagabeak» emango dizkiela iragarri du.



23 ■ Gose greba hasi dute Oaxacan

Gobernadoreari kargua kentzeko eskatu dute. Mexikoko Senatuak ez du hori egiteko asmorik.

Lankidetzeta da bidea

analisia

PAULO AGIRREBALTZATEGI
dizelea

Elebide aurkeztu du Hizkuntz Politikarako Sailordetzak, hizkuntz eskubideak bermatzeko zerbitzua izango dena. Azken urteotan egoki dihardu, ordea, hizkuntz eskubideen alorrean Behatokiak. Kontseiluak antolaturiko zerbitzuak. Kezka piztu du, beraz, Elebide-k Euskararen aldeko erakunde sozialen artean. Zergatik eta zertarako Behato-

kia kontuan izan gabe horren parekoa eraiki? Hona hemen kezka horren haritik zenbait gogoeta.

Ekimena. Ugaria eta eraginkorra izan da azken berrogei urteotan Euskararen aldeko herri-ekimena. Sailordetzeta eratu baino askoz lehenago. Diktaduraren ondorengo Euskal Herriko erakunde publikoen garaian ere kemenez eutsi dio. Ekintzaren eta ahaleginaren puruz eratu eta eraiki ahal izan du hainbat plataforma eta erakunde baliotzko. Ez ote dute merzei erakunde publikoen aldetik, hainbat

alditan izan duten baino harrera hobez kontuan izan eta baliotz-tzea?

Ordezkapena. Ordezkaritzan oinarrituriko demokrazia omen da gurea; eta horretarako aukeratzeko bide ditugu geure ordezkaririk. Bada, ordea, ordezkaritzan oinarriturik, ordezkapen-politika egin nahi duenik.

Gizartetik asmatu eta eraikitako proiektu eta erakundeak ordezkatzea da horrelakoaren estrategia, parekoak —kontrakoa?— sortuz, bide batez erakunde sozia-

len arteko kontradikzioak eta zati-keketak bultzatu, horietakoak erakunde publikoen kontrolpe osoan ipini ezinean.

Lankidetzeta. Ulertezina gertatu izan zaif beti politika modu hori. Herritar guztona izanik Euskara, hori normalizatzeko edo biziberritzeko politikak herritarrengan oinarritu behar du: herritarrek behar dutela protagonistak izan, alegia. Erakunde publikoek beren betebeharrak dute, jakina, eta ekimen-eskubidea eta eginbidea aitortu eta onartu behar zaie plangintza orokorra egin eta betetzeko, eta beteazteko.

Bi ildo hauek beharko lituzke, beraz, landu politika instituzionalak euskalgintzan: aurrenik, herri-

tarren ekimenak eta erakundeak sustatu, indartu eta bermatzea, horien ekarpenak kritikoki balioztatuz eta beraien autonomia eta kritika ere onartu eta zainduz; bigarrenik, erakunde sozialekiko konfiantzazko harremanak zabaltea eta lankidetzeta egokia eskaini eta eskatzea, horretarako baliabideak eratu.

Are ulertezinagoa gertatzen da ordezkapen-politika euskararen alorrean, politikoki errentagarria ez delako; izan ere, herritarren ekimena indartuz bakarrik indartu ahal izango da euskararen normalkuntzaren aldeko politika instituzionala bera, eta horrela bakarrik eraman ahal izango dira aurrera erakunde publikoetatik bideraturiko planak ere.

«Eskubideak bermatu behar ez baditu, Elebidek ez du zentzurik»

PAUL BILBAO Hizkuntz Eskubideen Behatoki zuzendaria

Hizkuntz eskubideen urraketak benetan gainditzeko, Elebideren moduko tresna administratiboaz gain, tresna juridikoak ere eskatu ditu.

J. G.
Donostia

Paul Bilbaoren (Getxo, 1971) iritziak, pozgarria da hizkuntz eskubideen bermearikin lotutako erakundea sortzea. Baina horixe nabarmendu du, Elebidek hizkuntz eskubideak benetan bermatu behar dituela.

Zer iritzi duzu Eusko Jaurlaritzak Elebide sortzeari buruz?

Azken bost urteetan Behatokiak egin duen diagnosien eta Behatokiara jo duten milaka herritarren kehen ondorio da. Behatokiak urtero esan izan du hizkuntz eskubideak urratzen direla —kasu batzuetan sistematikoki—, eskubide horiek bermatzea administrazioei dagokiela eta administrazioek mekanismo juridikoak eta administrazioak abian jarri behar dituztela hizkuntz eskubide horiek bermatuko.

Albiste pozgarria al da?

Hizkuntz eskubideen bermearikin lotuta dagoen edozein albiste pozgarria da, ez dago zalantzarik. Elebide sortu aurretik beste eredu batzuk aztertu dituzte; Kataluniako, esa-

terako, Eusko Jaurlaritzak jarri al da herremantetan Behatokiarekin?

Ez. Ez al da adierazgarria Behatokiarekin herremantetan ez jartzea?

Gaur egun Euskal Herrian hizkuntz eskubideen egoeraren diagnosiak egiten dituen erakunde bakarra izanda, ez da ulergarria Behatokia aintzat ez hartzea.

Kataluniako eredu baliagarria al da?

Bai. Bazterrikak arrazoia du, administrazioei dagokie eskubideak bermatzea eta Elebide norabide horretan jarri beharko dute. Horren adibide dira Katalunian dauden Hizkuntz Bermerako Bulegoak. Har dezatela eredu hori. Bulego horiek, azken finean, herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko ekimenak jartzen dituzte abian edo indarrean.

Behatokia eta Elebide osagarriak al dira?

Bai. Hor dago Kataluniako adibidea. Alde batetik, Katalunian badago gizarte mugimendu bat: Observatori de la Llengua Catalana. Nazio izaera du, Herrialde Katalanak osorik hartzen ditu eta egoeraren diagnosiak egiten ditu. Bestetik, hizkuntz eskubideak bermatzea Administrazio Publikoari dagokionez. Administrazioak hizkuntz eskubideak bermatzeko politikak abian jartzen ditu, Observatoriak jasotzen duen informazioa aintzat hartuta. Osagarriak izan behar dugu, bakoitzak bere rola jokatzeko badi.

Elebide hizkuntz eskubideak bermatzeko zerbitzua da. Kexa bakoitzak konpon-

bide izeatea da asmoa. Gaur egun indarrean dauden lege eta tresnekin benetako bermerik edo konponbiderik izan al daiteke?

Laster izango da Osakidetzaren lan eskaintza publikoa. Deialdi hori, zoritzarrez, gaur egun indarrean dagoen legearen arabera aurrera aterako dute, eta lan deialdi horren ondorioz herritarren hizkuntz eskubideak urratuko dituzte. Adibide ona da ikusteko hizkuntz eskubideen urraketak benetan gainditzeko tresna juridiko-administratiboak abian jarri behar direla. Tresna administratibo moduan uler dezakegu Elebide edo halako zerbitzu bat abian jartzea, baina tresna juridikoak ere abian jarri behar dira. Kontua da erakundeek, enpresek... behar hori ikusten ez badute beti borondatearen munduan murgilduko gara.

Elebidek herritarri azken erantzuna bermatuko diola esan dute aurkezpenan. Hori nahikoa al da?

Baina herritarri zer bermatuko zaio, azken erantzuna edo hizkuntz eskubideen bermea? Oso gauza ezberdinak dira. Elebidek eskubide hori ez dela urratuko bermatu behar du. Bost urte daramatza lanean eta erakundeen erantzunak jaso ditugu. Ehunka adibide ditugu hizkuntz eskubidea ezin

«Ez da ulergarria Elebide sortzeko Behatokia aintzat ez hartzea. Osagarriak izan behar dugu»



ILIAN CAJAL/OKI / APCA/24 PRESS

dela bermatu diotenak. Horren aurrean zer? Zer berme dauka herritarrek? Herritarri eskubidea bermatu egin behar zaio. Bermatu behar ez badira, ez dauka zentzurik Elebide sortzea. Horrelako zerbitzu bat jartzen bada, hizkuntz eskubideak bermatzeko izan behar du. Hor ikusten dugu osagarritasuna. Jarraituko dugu kekek bideratzen, eta hemendik aurrera kekek Elebidera ere bideratuko ditugu. Eskubideak bermatzen dira

edo ez dira bermatzen. Ez dago tarreko biderik. Horren arabera neurtuko dugu Elebideren lana. Eta erakundearen eginkizunetan ez da bermatu edo horren gisako aditz indartsurik agertzen.

Elebidek erdalduen hizkuntz eskubideak ere bermatuko ditu.

Noiz eta non urratzen zaio erdaldu-nari bere hizkuntz eskubidea? Ez dut kasurik ezagutzen. Nori urratzen zaizkio hizkuntz eskubideak? Euskaldunari.